(I) ELHEKETA - ASTE HUNTAKO SOLAS GAIA.

1 - Campionek zonbat liburu baditu agertzekotan 80 urte?
2 - Campionek baditua etsaiak ?
3 - Zertako Campion goresten du Manez Haundi

(II) ARTHUR CAMPION. 3

Nork erran lezake, orai berian, lauetan hogoi urthetan, agertzekotan dituela hiru liburu, moldetegirat eremaiteko prest?

Yakhintsu haundiek adimenduko lanak, bizi direno, ez ituzte uzten ahal. Heien gogoko hazkurriaren gaiak yanhariak bezain baitezpadakoak dira beren biziari.

Bizkitartean, dolumin hitsarekin behar dugu aithortu gure gizon haundiari ez dazkotela denek egin merexi dituen goresmenak. Politikako yaidura tzarrek itsuturik, ukhatu dazkote zonbaitek, edo bederen ahatzi, holako gizon ohorengarri bati dohazkon laudorioak.

Gorets dezagun gure Kanpion haundia, eta Yinkuak iraunaraz dezala anitz urthez.

CAMPION YAUNARI *

Bere goresmeneko egunean

Ohore, zuri gure erakusle yakintsu zaharra. Ohore Napartarren argitzaile eta iratzartzaileari!

Zagutzen ez dena, ez da maitatzen ahal. Zuri esker, beraz, daskigu zein haundia eta aipatua zen aitzineko mendetarik geroz gure Naparroa. Zuri esker piztu zaizkigu (sic) bihotzeko garra. zaiku

Zure bihotz suharra eta zure yakitate haundia Naparroaren eta Eskualherri guziaren amodioz lan harrigarriari lothu ziren, liburu eta paper zaharren ikertzea eta argitzea. Berrogoita hamar urthez, bururik altxatu gabe, bermatu zira, dremendenik[1] lotsatu eta etsitu gabe, bihotza sutsu, eta gogoa xut[2]. Ohore zuri!

Jaintsu egiazkoen arau, baño eta umilki iges egin duzu bethidanik etxetik kanpoko balakatze bideeri: eta ixilki zure xokoan yarraiki zira kartsuki idazki mamitsuetan, deneeri ezagutarazteko eta maitarazteko Naparroaren eta Eskualerri guziaren haizutasuna[3].

Gorets dezagun Campion haundia eta maitagarria.

* (*La Voz de Navarra*, 1931/11/28)

Zagutzen = Ezagutzen.
Dremendren = Den mendirena = le moindre.

(III) ADITZ IKASKUNTZA.

31 - Erran lezake 32 - Ez dazkotela.
33 - Dohazkon laudorak 34 - Gorets dezagun

31. UKAN. Conditionnel Futur.

Nik Ukan nezake (je l'aurais)		Ukan nitzazke (je les aurais)
Hik -"- hezake		" hitzazke
Zuk -"- zinezake		" zinitzazke
Harek -"- lezake		" litzazke
Guk -"- ginezake		" ginitzazke
Zuek -"- zinezakete		" zinitzazkete
Heiek -"- lezakete	etc.	" litzazkete etc.

32. UKAN - Conj. à dble cplt. Indic. Présent

Objet pluriel - Complt indir. singulier.

Hari = à lui.

Nik dizkiot (dazkot) = je les lui ai
Zuk dizkiozu (dazkozu) = vous les lui avez
Harek dizkio (dazko) = il les lui a
Guk dizkiogu (dazkogu) = nous les lui avons
Zuek dizkiozue (dazkozue) = vous les lui avez
Heiek dizkiote (dazkote) = ils les lui ont

edo = diozkat, diozkatzu, diozka, diozkagu, diozkatzue, diozkate

33. JOAN - Régime Indir. Indicatif Présent

(Hura) doa = il va	Heiek doatzi = ils vont
Hura(ki)/doakit = il me va	Heiek (ni)/doazkit = ils me vont
doakizu = il vous va	doazkizu = ils vous vont
(1) doakio = il lui va	(1) doazkio = ils lui vont
doakigu = il nous va	doazkigu = ils nous vont
doakizue = il vous va	doazkizue = ils vous vont
doakie = il leur va	doazkie = ils leur vont

(1) B.N. Garazi = doakon (1) B.N. Garazi = doazkon